

## ***Lan-poltsa***

# ***Toki Administrazioko Idazkaritza, Idazkaritza-Kontuhartzaitza eta Kontuhartzaitza-Diruzaintza***

## **2. ariketa**

**2016/07/09**



## 1. KASUA (6 puntu)

Araubide erkideko udalbatza bat eratu da, udal-erregelamendu organikorik gabe eta 17 kideekin. Alkateak zalantza batzuk ditu kide anitzeko organoek egin beharreko bilkuren erregimenari buruz, eta idazkariari galdetu dizkio, hark argibideak emateko. Hona hemen alkatearen zalantzak:

- 1.- Zer quorum behar da osoko bilkurak egiteko?
- 2.- Zazpi zinegotziz osatutako talde politiko batek osoko bilkura berezi bat egiteko eskaera egiten badu bozeramailearen sinadura daraman idazki baten bidez, alkateak erabaki al dezake bilera-deirik ez egitea?
- 3.- Alkateak erabaki al dezake behar bezala eskatutako osoko bilkura berezi baterako deirik ez egitea, beharrezkoa ez dela pentsatzen badu?

## 2. KASUA (7 puntu)

Xabier Arrizabalaga Leturain Beasaingo bide publikoan erori zen 2013ko abenduaren 20an. Udaltzainak joan zitzaizkion laguntzera; anbulantziari deitu zioten, eta larrialdietako zerbitzu medikoetara eraman zuten. Ererikoaren ondorioz, tibia hautsi zuen, eta, operatu eta errehabilitazioa egin ondoren, alta eman zioten 2014ko maiatzaren 20an.

2015eko maiatzaren 15ean, ondare-erantzukizuna eskatzeko erreklamazioa jarri zuen Gipuzkoako Foru Aldundian. Erreklamazioa Beasaingo alkateari zuzenduta zegoen, eta alegazio hauek biltzen zituen:

- a) 2013ko abenduaren 20an Beasainen izandako ererikoa da tibia-hausturaren kausa zuzena.
- b) Bide publikoan izandako ererikoa zoladura gaizki egoteak eragin zuen, hainbat lauza altxatuta baitzeuden, zulo txiki bat eratzen zutela.
- c) Izandako lesioaren ondorioz, ezin izan du autonomo gisa daukan negozioan lanean aritu eta, hortaz, ezin izan ditu lortu bere lanbide-jardueran arituta lortuko lituzkeen diru-sarrerak.
- d) Bere ustez, bide publikoko zoladura udal-zerbitzu bat da, eta, gaizki badago –bere lesioa eragin du zoladura horrek– Beasaingo Udalari egotzi behar zaio gaizki egote hori.

Alegazio horiek oinarri hartuta, honako hauek eskatu zituen:

- a) Hilean 2.000 euro, bere lanetik jasotzeari utzitako diru-sarrerengatik; hain zuzen ere horixe baita hilerok bere negoziotik jasotzen duen diru-sarreraren batez besteko zenbatekoa.
- b) 1.000 euroko kalte-ordaina, berari eragindako kaltea konpontzeko kalte-ordain gisa.

Dokumentazio hau aurkeztu zuen erreklamazioarekin batera:

- a) NANaren kopia.
- b) Bere lesioa, horrek eragin zion laneko baja eta alta jasotako data egiaztatzen dituen mediku-ziurtagiria.
- c) Bere lan- eta enpresaburu-egoera egiaztatzen duen dokumentazioa (lizentzia fiskalaren alta eta gizarte-segurantzako alta autonomoetan).

Gipuzkoako Foru Aldundiak erreklamazioa Beasaingo Udalari bidali zion 2015eko maiatzaren 21ean, eta egun hartan bertan eman zitzaion sarrera erreklamazio horri Beasaingo Udalean. 2015eko maiatzaren 24an (osteguna), Beasaingo Udalak eskaera zuzentzeko eskatu zion Arrizabalaga jaunari, justifikatu egin behar zuelako jaso gabeko diru-sarrerengatik kalte-ordain gisa eskatzen zuen zenbatekoa benetan bat zetorrela laneko bajaran egondako aldiari jaso beharko lituzkeen batez besteko diru-sarrerekin.

Arrizabalaga jaunak PFEZaren aitortzen azken bi urteetako egiaztagiria bidali zituen, eta agiri horietan ikusten da erreklamatu zituen zenbatekoak bat zetozeela denboraldi hartan jasoko lituzkeen batez besteko diru-sarrerekin.



Prozeduran zehar, gertaera hauek eman ziren frogatutzat:

- a) Zoladuran zulo bat zegoela, hainbat lauza altxatuta zeudelako (auzokoen adierazpenen bidez eta udalaren mantentze-zerbitzuak egindako txostenaren bidez jakin zen hori. Zerbitzu horrek, gainera, zoladura konpondu zuen handik egun batzuetara).
- b) Bistakoa zela erorikoaren unean Arrizabalaga jauna oso mozkorra zegoela (hala adierazi zuten erori ondoren lagundu zioten bi udaltzainek).

Jarritako erreklamazioa ezestearekin eman zitzaion bukaera prozedurari, lesioaren kausa ez zelako izan tokiko zerbitzuen funtzionamendu txarra, Arrizabalaga jauna mozkorra egotea baizik.

### **Galderak**

1. Zer datatan jo behar da Arrizabalaga jaunaren erreklamazioa Beasaingo Udalean sartutzat?
2. Zein da ondare-erantzukizuna eskatzeko erreklamazioa zuzentzeko emandako epearen azken eguna Arrizabalaga jaunarentzat? Eguna berbera izango al litzateke prozedura modu presentzialean izapidetzen ariko balitz edo prozedura telematiko bat balitz?
3. Izapidetu al liteke erreklamazioa prozedura laburtuaren bidez?
4. Eskatu behar al da Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren txostena ondare-erantzukizuneko prozeduran zehar?
5. Ondare-erantzukizuna ezestea udaleko osoko bilkurak erabakitzen badu, jar al daiteke gora jotzeko errekurtsorik ezespren horren kontra? Eta ezestea alkateak erabaki izan balu?
6. Zer organok ebatzi behar dituzte ondare-erantzukizuna eskatzeko erreklamazioari erantzunez udalak emandako ezesprenaren aurka jarritako errekurtsioak?
7. Ondare-erantzukizuna eskatzeko erreklamazioa ezestearen aurka errekurtsioa jarri bada, zure ustez zer arrazoi eta erabaki adierazi beharko lituzke errekurtsio horren ebazpenak?
8. Azkenean udalaren ondare-erantzukizuna onartu behar dela erabakitzen bada eta udalak onartzen badu zoladuraren egoera txarra langile baten zabarkeriaren ondorioa dela, Arrizabalaga jauna erori baino aste batzuk lehenago konpondu behar zuelako zoladura, zer prozedurari jarraitu beharko lioke udalak bere erantzukizuna langileari jasanarazteko?

### 3. KASUA (7 puntu)

Datu hauek aurkeztu ditu toki-erakunde batek 2015eko ekitaldiaren itxieran:

#### DIRUZAINZAKO KONTAKETA, EKITALDIAREN ITXIERAN

Diruzaintzako ordinalak	Hasierako saldoa	Diru-sarrerak	Ordainketak	Amaierako saldoa
	urtarrilaren 1ean			abenduaren 31n
Udalbatzaren kutxa	540,00	300,00	750,00	90,00
Kutxabank	652.300,00	2.000.000,00	2.179.558,48	472.741,52
Laboral Kutxa	230.482,59	194.785,89	100.000,00	325.268,48
Banco Bilbao Vizcaya Argentaria	41.900,00	0,00	0,00	41.900,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>925.222,59</b>	<b>2.195.085,89</b>	<b>2.280.308,48</b>	<b>840.000,00</b>

#### AURREKONTUKOAK EZ DIREN KONTZEPTUEN EGOERA

Deskribapena	Hasierako saldoak		Amaierako saldoak	
	Zordunak	Zordunak	Zordunak	Hartzekodunak
ERATUTAKO GORDAILUAK	16.000,00	0,00	16.000,00	0,00
BEZ-AGATIKO ZORDUNAK	73.700,00	0,00	74.000,00	0,00
PFEZ, LAN PERTSONALAGATIKO ATXIKIPENA	0,00	20.000,00	0,00	19.500,00
KOBRANTZA BIKOIZTUAK EDO GEHIEGIZKOAK	0,00	3.190,00	0,00	2.000,00
LANGILEAK GIZARTE-SEGURANTZARI ORDAINTZEKO KUOTA	0,00	1.500,00	0,00	1.300,00
BEZ-AGATIK HARTZEKODUNA DEN OGASUN PUBLIKOA	0,00	1.250,00	0,00	1.200,00
OBRAK EGIKARITZEKO FIDANTZAK	0,00	20.000,00	0,00	15.500,00
HAINBAT MOTATAKO GORDAILUAK	0,00	37.800,00	0,00	35.000,00
JASOTAKO ABAL ETA BERMEAK	125.800,00	0,00	23.000,00	0,00
<b>TOTALES</b>	<b>215.500,00</b>	<b>83.740,00</b>	<b>113.000,00</b>	<b>74.500,00</b>



**AURREKONTU ARRUNTEKO DIRU-SARREREN EGOERA.- 2015**

Kontzeptua	Deskribapena	Hasierako aurreikuspenak	Aldaketak, guztira	Aurreikuspenak, guztira	Eskubide onartuak, guztira	Eskubide ezeztatuak	Eskubide onartu garbiak	Diru-bilketa likidoa	Eskubide kobratu gabeak
11200	ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA	251.300,50	0,00	251.300,50	251.300,00	0,00	251.300,00	247.300,00	4.000,00
11300	TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA	188.000,00	0,00	188.000,00	188.000,00	8.000,00	180.000,00	150.000,00	30.000,00
13000	EKONOMIA-JARDUEREN GAINEKO ZERGA	25.484,55	0,00	25.484,55	25.484,55	0,00	25.484,55	21.484,55	4.000,00
28200	ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINEKO ZERGA	150.000,00	0,00	150.000,00	12.000,00	2.000,00	10.000,00	4.000,00	6.000,00
31001	ZABOR-TASA	146.300,00	0,00	146.300,00	146.000,00	450,00	145.550,00	135.550,00	10.000,00
31004	DOKUMENTUAK EGITEAGATIKO TASA	700,00	0,00	700,00	500,00	0,00	500,00	500,00	0,00
31201	HIRIGINTZA-LIZENTZIEEN TASA	3.000,00	0,00	3.000,00	500,00	0,00	500,00	500,00	0,00
32109	BIDE PUBLIKOA OKUPATZEAGATIKO TASAK	29.500,00	0,00	29.500,00	22.000,00	0,00	22.000,00	21.000,00	1.000,00
39200	PREMIAMENDU-ERREKARGUAK	9.000,00	0,00	9.000,00	4.500,00	0,00	4.500,00	4.500,00	0,00
39300	BERANDUTZE-INTERESAK	2.200,00	0,00	2.200,00	1.580,00	0,00	1.580,00	1.580,00	0,00
39601	TELEFONO-KONPENTSAZIOA	6.000,00	0,00	6.000,00	5.700,00	0,00	5.700,00	5.700,00	0,00
39900	BESTE HAINBAT DIRU-SARRERA	0,00	0,00	0,00	1.600,00	0,00	1.600,00	1.600,00	0,00
40001	TRIBUTU ITUNDUGABEETAN PARTE HARTZEA	3.000,00	0,00	3.000,00	3.000,00	0,00	3.000,00	3.000,00	0,00
41001	EUSKO JAURLARITZAREN TRANSFERENTZIAK	2.000,00	0,00	2.000,00	1.200,00	0,00	1.200,00	1.200,00	0,00
42001	LURRALDE HISTORIKOAREN TRANSFERENTZIAK	1.587.555,00	0,00	1.587.555,00	1.545.000,00	0,00	1.545.000,00	1.545.000,00	0,00
47100	ENPRESA PRIBATUEN TRANSFERENTZIAK	9.000,00	0,00	9.000,00	8.500,00	0,00	8.500,00	7.600,00	900,00
54000	HIRI-FINKEN ERRENTAMENDUAREN EMAITZA	27.000,00	0,00	27.000,00	26.000,00	0,00	26.000,00	2.000,00	24.000,00
56000	GORDAILUEN INTERESAK	300,00	0,00	300,00	295,00	0,00	295,00	295,00	0,00
65002	HIRIGINTZA-KUOTAK	0,00	15.000,00	15.000,00	15.000,00	0,00	15.000,00	10.000,00	5.000,00
71001	EUSKO JAURLARITZAREN TRANSFERENTZIAK	0,00	20.000,00	20.000,00	20.000,00	0,00	20.000,00	0,00	20.000,00
72001	LURRALDE HISTORIKOAREN TRANSFERENTZIAK	0,00	50.000,00	50.000,00	50.000,00	0,00	50.000,00	0,00	50.000,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>2.440.340,05</b>	<b>85.000,00</b>	<b>2.525.340,05</b>	<b>2.328.159,55</b>	<b>10.450,00</b>	<b>2.317.709,55</b>	<b>2.162.809,55</b>	<b>154.900,00</b>

**AURREKONTU ITXIETAKO DIRU-SARREREN EGOERA**

<b>Ekitaldia</b>	<b>Kontzeptua</b>	<b>Deskribapena</b>	<b>Eskubideen hasierako saldoa</b>	<b>Eskubide deuseztatuak</b>	<b>Bildutako eskubideak</b>	<b>Eskubide kobratu gabeak</b>
2010	11300	TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA	5.306,30	300,00	2.006,30	3.000,00
2010	31001	ZABOR-TASA	2.187,08	187,08	1.500,00	500,00
<b>2010. urtea, guztira</b>			<b>7.493,38</b>	<b>487,08</b>	<b>3.506,30</b>	<b>3.500,00</b>
2011	11300	TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA	5.654,20	654,20	3.000,00	2.000,00
2011	31001	ZABOR-TASA	766,69	6,69	260,00	500,00
<b>2011. urtea, guztira</b>			<b>6.420,89</b>	<b>660,89</b>	<b>3.260,00</b>	<b>2.500,00</b>
2012	11300	TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA	9.116,02	116,02	5.000,00	4.000,00
2012	28200	ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINEKO ZERGA	8.799,41	799,41	6.800,00	1.200,00
2012	31001	ZABOR-TASA	1.028,04	28,00	600,04	400,00
2012	31201	HIRIGINTZA-LIZENTZIEN TASA	213,48	3,48	10,00	200,00
<b>2012. urtea, guztira</b>			<b>19.156,95</b>	<b>946,91</b>	<b>12.410,04</b>	<b>5.800,00</b>
2013	11300	TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA	10.658,80	58,80	5.800,00	4.800,00
2013	31001	ZABOR-TASA	2.510,95	510,95	0,00	2.000,00
2013	72001	LURRALDE HISTORIKOAREN TRANSFERENTZIAK	20.000,00	0,00	0,00	20.000,00
<b>2013. urtea, guztira</b>			<b>33.169,75</b>	<b>569,75</b>	<b>5.800,00</b>	<b>26.800,00</b>
2014	11300	TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA	13.013,32	3.013,32	4.000,00	6.000,00
2014	28200	ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINEKO ZERGA	15.349,50	5.349,50	2.000,00	8.000,00
2014	31001	ZABOR-TASA	3.911,12	911,12	1.000,00	2.000,00
2014	31201	HIRIGINTZA-LIZENTZIEN TASA	340,01	340,01	0,00	0,00
2014	54000	HIRI-FINKEN ERRENTAMENDUAREN EMAITZA	360,60	360,60	0,00	0,00
2014	71001	EUSKO JAURLARITZAREN TRANSFERENTZIAK	35.000,00	0,00	0,00	35.000,00
<b>2014. urtea, guztira</b>			<b>67.974,55</b>	<b>9.974,55</b>	<b>7.000,00</b>	<b>51.000,00</b>
<b>EKITALDI ITXIETAKO KOPURU OROKORRAK, GUZTIRA</b>			<b>134.215,52</b>	<b>12.639,18</b>	<b>31.976,34</b>	<b>89.600,00</b>





**AURREKONTU ARRUNTEKO GASTUEN EGOERA.- 2015**

Saikapena		Deskribapena	Hasierako	Kreditu	Kredituak,	Betebehar	Agindutako	Egindako	Betebehar	Agindutako
Prog.	Ekon.		kredituak	aldaketak	guztira	onartuak	ordainketak	ordainketak	ordaindu gabeak	Ordaindu gabeak
920	12000	FUNTZIONARIOEN OINARRIZKO ORDAINSARIAK	85.091,71	0,00	85.091,71	85.000,00	85.000,00	85.000,00	0,00	0,00
920	12100	FUNTZIONARIOEN ORDAINSARI OSAGARRIAK	202.790,03	0,00	202.790,03	202.000,00	202.000,00	202.000,00	0,00	0,00
920	13000	LANGILE LAN-KONTRATUDUN FINKOEN ORDAINSARIAK	177.628,44	0,00	177.628,44	177.600,00	177.600,00	177.600,00	0,00	0,00
931	16001	UDALAREN KONTURA DOAZEN GIZARTE-SEGURANTZAKO KUOTAK	11.185,80	0,00	11.185,80	11.185,00	11.185,00	11.185,00	0,00	0,00
337	22000	BULEGO-MATERIALA	3.500,00	0,00	3.500,00	3.000,00	2.500,00	2.500,00	500,00	0,00
150	22100	HAINBAT MOTATAKO HORNIKUNTZAK	13.600,00	0,00	13.600,00	13.600,00	13.000,00	10.000,00	600,00	3.000,00
920	22400	ASEGURU-PRIMAK	12.800,00	0,00	12.800,00	12.000,00	12.000,00	10.000,00	0,00	2.000,00
163	42101	ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA	1.547.993,54	0,00	1.547.993,54	1.547.000,00	1.547.000,00	1.540.000,00	0,00	7.000,00
334	48101	KULTURAKO DIRU-LAGUNTZAK	30.000,00	0,00	30.000,00	30.000,00	30.000,00	30.000,00	0,00	0,00
920	62401	IBILGAILU BAT ESKURATZEA OBRETAKO LANTALDEARENTZAT	33.100,00	0,00	33.100,00	33.000,00	33.000,00	0,00	0,00	33.000,00
920	62501	UDALETXERAKO EKIPAMENDUA	4.000,00	0,00	4.000,00	4.000,00	4.000,00	0,00	0,00	4.000,00
929	62502	BAKE-EPAITEGIRAKO EKIPAMENDUA	50.000,00	0,00	50.000,00	50.000,00	50.000,00	50.000,00	0,00	0,00
920	62504	SOINU-KATEA ESKURATZEA	13.500,00	0,00	13.500,00	13.500,00	13.500,00	13.500,00	0,00	0,00
323	62505	HAURRESKOLARAKO EKIPAMENDUA	50.000,00	15.000,00	65.000,00	20.000,00	0,00	0,00	20.000,00	0,00
342	62507	FRONTOIRAKO EKIPAMENDUA	60.000,00	0,00	60.000,00	60.000,00	60.000,00	60.000,00	0,00	0,00
326	62509	KZ GUNERAKO EKIPAMENDUA	0,00	20.000,00	20.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
230	62606	EKIPAMENDU INFORMATIKOA EGUNERATZEA	20.000,00	0,00	20.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
920	62607	PC INDUSTRIALA ETA ROUTERRA JARTZEA INFORMAZIO-PANELEAN	15.000,00	0,00	15.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
3321	62801	FUNTS BIBLIOGRAFIKOAK ESKURATZEA UDAL-LIBURUTEGIRAKO (A)	5.000,00	0,00	5.000,00	3.900,00	3.000,00	0,00	900,00	3.000,00
920	62901	INFORMAZIO-PANELAK ESKURATZEA	40.000,00	0,00	40.000,00	40.000,00	40.000,00	40.000,00	0,00	0,00
151	64301	HAPO	0,00	50.000,00	50.000,00	29.800,00	29.800,00	29.800,00	0,00	0,00
<b>GUZTIRA</b>			<b>2.375.189,52</b>	<b>85.000,00</b>	<b>2.460.189,52</b>	<b>2.335.585,00</b>	<b>2.313.585,00</b>	<b>2.261.585,00</b>	<b>22.000,00</b>	<b>52.000,00</b>

**AURREKONTU ITXIETAKO GASTUEN EGOERA**

Ekitaldia	Saikapena		Deskribapena	Betebehar onartu ordaindu gabeen hasierako saldoa	Agindutako ordainketa ordaindugabeen hasierako saldoa	Egindako ordainketak	Betebehar onartu ordaindugabeen azken saldoa	Agindutako ordainketa ordaindugabeen azken saldoa
	Prog.	Ekon.						
2013	121	21200	MAKINERIA ETA INSTALAZIOEN KONPONK., MANTEN., KONTSERB.	200,00	0,00	0,00	200,00	0,00
2013	121	21500	EKIPAMENDU INFORMATIKOAK	0,00	493,68	493,68	0,00	0,00
2013	121	22000	BULEGO-MATERIALA	731,82	0,00	731,82	0,00	0,00
2014	121	22100	HORNIDURAK	1.250,00	0,00	250,00	1.000,00	0,00
2014	121	22600	HAINBAT GASTU	6.184,49	0,00	184,49	6.000,00	0,00
2014	121	62501	UDALETXERAKO EKIPAMENDUA	331,54	0,00	331,54	0,00	0,00
2014	122	62502	BAKE-EPAITEGIRAKO EKIPAMENDUA	165,77	0,00	165,77	0,00	0,00
2014	451	22000	BULEGO-MATERIALA	64,21	0,00	64,21	0,00	0,00
2014	451	22100	HAINBAT MOTATAKO HORNIKUNTZAK	491,57	0,00	491,57	0,00	0,00
2014	451	22606	JARDUERA SOZIO-KULTURAK	4.279,92	0,00	279,92	4.000,00	0,00
2014	451	22699	BESTE HAINBAT GASTU	49,50	0,00	49,50	0,00	0,00
2014	451	22704	KONTRATU SOZIO-KULTURAK	1.625,45	0,00	625,45	1.000,00	0,00
2014	452	21200	MAKINERIA ETA INSTALAZIOEN KONPONK., MANTEN., KONTSERB.	153,08	0,00	153,08	0,00	0,00
2014	452	22100	FRONTOIRAKO ETA KIROLDEGIRAKO HAINBAT HORNIKUNTZA	263,89	0,00	263,89	0,00	0,00
2014	452	22700	BESTE ENPRESA BATZUEKIN EGINDAKO LANAK	0,00	7.235,80	5.235,80	0,00	2.000,00
2014	456	21200	MAKINERIA ETA INSTALAZIOEN KONPONK., MANTEN., KONTSERB.	162,76	0,00	162,76	0,00	0,00
<b>GUZTIRA</b>				<b>15.954,00</b>	<b>7.729,48</b>	<b>9.483,48</b>	<b>12.200,00</b>	<b>2.000,00</b>

## FINANTZAKETA-DESBIDERATZEAK

Pilatutako finantzaketa-desbideratzeak kalkulatzeko, datu hauek hartu behar dira kontuan:

- 2013ko ekitaldiko “Lurralde historikoaren transferentziak” izeneko eskubide onartu kobratu gabeak finantzatzen du betebehar onarturik gaur egun ez daukan gastu baten % 80.
- 2014ko ekitaldiko “Eusko Jaurlaritzaren transferentziak” izeneko eskubide onartu kobratu gabeak finantzatzen du betebehar onarturik gaur egun ez daukan gastu baten % 50.
- 2015eko ekitaldiko “Hirigintza-kuota” izeneko eskubide onartu garbiak finantzatuko du gastu baten % 100 ondorengo ekitaldietan.
- 2015eko ekitaldiko “Eusko Jaurlaritzaren transferentziak” izeneko eskubide onartu kobratu gabeak finantzatzen du “KZ Gunerako ekipamendua” izeneko gastuaren % 100 2015eko ekitaldian.
- 2015eko ekitaldiko “Lurralde historikoaren transferentziak” izeneko eskubide onartu kobratu gabeak finantzatzen du “HAPO” izeneko gastuaren % 100 2015eko ekitaldian.

Toki-erakunde honek aurrekontua betearazteko udal-arauan ezarri ditu betearazteko zailak edo ezinezkoak diren eskubide kobratu gabeak zenbatesteko irizpideak. Hauexek dira irizpide horiek:

1. Edozein administrazio publikotatik datozen transferentzietatik edo diru-laguntzetatik eratorritako eskubide onartu kobratu gabeak, korronteak nahiz kapitalekoak, EZ dira joko betearazteko zail edo ezinezkotzat, edozein ekitalditan sortzen direla ere.
2. Ekitaldiaren itxieran kobratu gabe dauden gainontzeko eskubideak betearazteko zail edo ezinezkotzat joko dira, ehuneko hauen arabera:

Indarrean dagoen ekitaldia	% 10
n-1 ekitaldia	% 40
n-2 ekitaldia	% 50
Aurreko ekitaldiak	% 100

### Hauxe kalkulatu behar duzu:

- Guztira zenbatekoa den ekitaldiaren itxierako diruzaintzako gerakina.
- Zenbatekoa den finantzaketa lotuko gastuetarako diruzaintzako gerakina.
- Zenbatekoa den gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.